



HKEE-REN PRENTSA-OHARRA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2005EKO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIOAREN TXOSTENARI BURUZKOA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere erakunde autonomiadunen eta sozietate publikoen 2005eko Kontu Orokorraren eta ekonomia eta finantza jardueraren fiskalizazioari buruzko nahitaezko txostena egin du. Txostena HKEEren osoko bileraren kide gehienek onartu dute.

Txostenak kontabilitate eta legezkoa alderdiak hartzen ditu bere baitan, kudeaketa hobetzeko gomendioak ematen ditu eta Aldundiaren finantza egoera aztertzen du.

Legezketasunari dagokionez, HKEEk iritzi orokorra eman du Foru Aldundiaren jarduerari buruz, eta adierazi duenez, indarrean dagoen araudia bete du oro har, txostenean zehazten diren salbuespenak izan ezik.

Zerga-sarrerak direla eta, HKEEk bereziki aipatu du atzerapenak eskatzeko ebazpenak luzatu egiten direla, eta emandako bi atzerapenetan ez direla behar ziren bermeak osatu. Horrez gain, HKEEk adierazi du ezin izan dituela azertu sarrerak deuseztatzeko zenbait espediente, horiei dagozkien jarduerak ikertzen ari baita Ministerio fiskala.

Legea betetzeari buruzko beste salbuespen batzuk ere badira, adibidez, administrazio kontratazioan. Salbuespen horietan, egindako kontratuen zenbait esleipenetan, ez da publizitate eta lehiarik izan. Bestalde, bi kontratutan, Aldundiaren eraikinak garbitzeko zerbitzua eta Eibarko egoitzako asteburuko zaintzaileen kontratuan, legeak adierazitako baino luzapen handiagoa eman du. Azkenik, bi obratan eta aholkularitzako beste bi lanetan %37tik gorako gehikuntza izan da kostuan, eta erakunde fiskalizatzailearen ustez, horrek kontratuaren helburua indargabetzen du.

Diru-laguntzak emateari buruz, HKEEk azpimarratu ditu Diputatuen Kontseiluak emandako 21 diru-laguntza, bai eta Kulturako Zuzendari Nagusiak emandako beste hiru ere, ez baita arrazoitu zergatik ezin zitzairen lehia eta publizitate egokia eman.

Legezketasunari buruzko iritzia osatzen da enpresa bati saldutako industria-lursail batzuei dagokien atalarekin. Zenbatekoa 640 mila eurokoa izan zen. 1995ean intentzio-protokoloa sinatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak eta enpresak, baina salmenta ez



zen egin 2005. urtera arte, eta aldi horretan enpresak ondasunak erabili ditu inolako ordainik eman gabe. Txostenak adierazten duenez, besterentzea zuzenean egin da, eta ez da bete Ondareari buruzko Foru Arauan ezartzen dena eta katastro balioaren azpitik egin da.

Kontu Orokorra dela eta, HKEEk aldeko iritzia du aurkezpena eta edukiari buruz, eta salbuespen bakarrak dira zerga zordunen eta hartzekodunen aurrekontu-erregistro eza, eta ibilgetuaren zenbait sail xehatu gabe egotea.

Erakunde-administrazioari buruzko iritzia adierazten di ez dela legezko salbuespenik Uliazpi erakunde autonomiadunaren kontuan, eta sozietate publikoei dagokienez, ez betetze bakarra aipatzen du, Bidegi SArena, bi kontratu esleitu baitziren berez aplikatu behar zaizkion publizitate eta lehia printzipioak bete gabe.

Era berean, Epaitegiak zenbait gomendio eman ditu aurrekontu eta kontabilitate alderdiei, zerga-sarrerei, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari, diru-laguntza emateari, pertsonalaren kudeaketari eta foru ondareari buruzkoak.

Egindako finantza-azterketatik ondoriozta daitekeenez, azpimarratzen da emaitza arrunta gehitu egin dela %10,7, eta hitzartutako zergen bilketa, berriz, %11 gehitu dela; horrez gain, azken ekitaldietako zorpetzearen bilakaera ere aipatzen du, izan ere emaitza arruntarekiko %39 murriztu da, eta 2002 ekitaldian, adibidez, %86koa zen.